

txoren onetarat eta ortik Bordele, Mirritz, Bayona barna, geroxeago emengo aldia egiteko utzita, beren zorientegia den Senper sayetseko etxe xuri xurirat. Egun eta sekulan ez al zaitzue lanotuko ezkonberri zintzoak gaurko zoriona. Bazaudeke ba Txarles la-sai, ez dizu zere Maritxu'k mee egunean xingar ezurrik sartzeko eltzean, Elisaburu'k zion bezala.

MURRITXENEKO EGI BIZKARRERAN?

Bearri bearrirat datorrit zurrumurrua gure erriko agintari jaunak, diruzai zintzo zintzoan, 46 urtez diruzai-koa borobilki bete ondoan eta inoiz eskupekotaat korradu zulatu bat eman ez diolarik, bertzeri egoki zitzayena eman ondoan, ez direla esku zabal agertu, berexi bear zioten urteko emaitzan eta uste dut, diot inor samintzeko gogorik gabe, Murrixene'ko egi bizkarreran gelditu direla, urtean zuen osoa ukatuz diruzai aguretuari, ori ta geroxeago ere egokia zidurielarik. Utsegitea ta irrastzia, gizonena da; utsa zuzentzea, zintzo ta zentzatuena; ez ote da orailkoan bidezkoa zerbait bertzerik erriar agintari bikain jaunak? NASKALDIA

Pulmoni batek yoa aski larri ibilli da Madrill'en astean Sanzberro'ko Mañuela andre gaztea.

Laster bakarrean aratu zitzayon bere aizpa Ines. Onerako bidean da agian, Lainkoa lagun.

—Aingerutxo seme bat, Pedro noski, badute Olazarrea'n. Nere zorion agurrak aitamak eta guziek.

—Fulgercan'tik etorri dire Arburua' tar Permina bere alaba ta illobatxo aingeruakini.

—Zaragoza'tik Billarreal'dar Anjel sendakingal gaztea.

—Doneztebe-Iruña'tik erriratu da Osuna'tar Aurea, gure osakallari argia. Agur on bat guzteri.

ZUBIETA

ARGI DONEA

euskaldunen eliz-liburua

IRIBAS

Otzak garbituko gaitu gure Jaungoikoa kupitzen ez bazaigu. Elurra ta izotza gañezka.

LAURENA

Jesukristo'ren Pasio Santu'ko XIX'garren eunkada gogoratu ta aintzatzeko ta bere onepen barka menak irabazteko asmoan. Zauraz'tik etorri zitzagun Madariaga'tar A. Leon, Frantziskanua.

¡Lau egun bel-bela aztuko etza izkigunak, igaro ditugu A. agur-garri onen itzaldi ederrak entzuzenez!

Argi ta garbi agertu dizkigu Irugarrendarrak dauzkagun eginkizunak ta baita irabazi grazi berex, aundiak; Zorionekoak gu araudi onen aginduak beteaz bitzitzen bagera!

Ostiralean 14 urtez berako umen Jaunartzea zan; larunbatean emakumezkoena ta... igandean ¡Ai! ure edertasune Gizon ta mutill, andre ta neskatx, mutiko ta nexkato, erri guzie.

Irugarrendarrak, eskoplayo ta korduzeg jantzirik.

Larunbeta gabeen Absolutio generala eman zigun ta igandean Aita Santua'ren bendizioa.

¡Aintza ta aintza Jaungoikoa'ri ta Asis'ko Frantzisko Santua'ri! Eskerrak A. Leon ta Erretore j'ri orrelako onepenak irabazteko bidean jarri gaituelakoz.

IBILLERAK

Iruñe'n bere lengusu Makaya alarguna'ren etxian aldi luze bat igaro ta etxeratu da gure begiko amona xar ta txukun Zubiria'tar Prantxiske. Ongi etorrie amonaxoa. ¡Obe dezu bai zure etxeko ta Apez sukaldeko su gozoen alboan negue igaro.

EGUBERRI TA URTE BERRI

Zoriontsuak Elgoibar'en ezagutu

tako idaz-lagun «Mirentxu» «Maltxo», «Tene», «Ira», «Armoya», «Yolanda», «Jexuxa», «Arantxa», «Itziartxo», «Itziar maite», «Mariaren alaba», «Arkaitz arte», «Gurutx ondo» ta abar. Berexiki zuzendari j'ri, baita beste idazle guziaz ta irakurle maitea'ri; beño aztu gabe bintzet «Aberri» ta «Atarrene» ok «espezialak» baitire ta gañera «alikante» puske bana neskatx zarrak kontatzen asten diranean, agoa pixka bat goxatzeko.

OPORKETA

«Kukupeta»ren kalyolako aterra onenbat izanen dela ta gaude. Eskerrak otzak gaudela, bizkarra jarri bear.

Nola nai dela ongi etorrie zere lagun Buldañ'ekiñ ta, turrune jateko txorroxtu agiñek.

«Iturralde»riñy lu du d u d u d

«ITURRALDE»RI

Jakintsu naiz zure aldi untako naigabez. Artu zazu nere lagun-tza zure samintasunean. Seanditik bi zati iges egiteak, beregan ikusi dunak bakarrik daki, ta ortza gañera bat ama... geigo. Kristau zintzoa zera ta fedeak emanen dizu indarra eramanpenarekin artzeko naigabe ori.

G. B. zure ama kutune ta koñiata maiteak otoitz egiñen dut beren gogo alde.

Urrengo arte, irakurle, Jainkoak nai badu.

TXIKI ALAI

Jose Goikoe'nea Zulaika Ortzlari ta sendagillea

Ortz berriak jarri ta txarrak ateratzeko ortzlari trebe ta konfiantzakoeña

Mayor 1, 2.º — DONOSTIA

Euskotar umien alde

«Bide bakarrean, izarren argipean, pitin baten gelditu nintzan, eta nere aurrean ikusi nuah, bere beso artean ainbeste etxe estutzen dituan lurr, eta etxe danetan oiak eta seaskak.»—Tagore.

Gure umiai erakusteko asmoz Euzkadi'ra datozen irakasleak ume bat bakarrik ezagutzen dute, ez ikusi eta ez ikutu leikian ume bat; orderaz esateko un niño abstracto, Madrid'en Erri Ikaskuntza Ministerio'an sortua.

Ume onerixe erakusten, eta ume onerixe aziera ona ematen erakusten dute Normal ikastoletan, eta dan dantetan bildintza berdiñak ematen dituzte.

¡Ez bai dute ulertzen Madrid'en baldintza oyetatik ez ezer erakutsi ta ez erer ikasi leikianik!

Beste gauza bat. Gañera, irakaslia onera etorri baño len Segovia'n edo Valladolid'en edo irakasle izana ba'da, ikusita dauka ango umiak ondo samar baldintza oyen barruan sartzen dirala, ta Euzkadi'ra etortzen daniñan berdin berdin lana egiten asitzen da.

Baña euskotar umiak ezin inola ere baldintza ayetan sartu, gauza batzuek estu etortzen zaizkiote, beste batzuek berriz lasaiegi; luziegi, laburregi ta abar, eta beti bezela lana egin arren beti bezelako ondorenak ikusten ez dituanian irakasliaren artea au izaten da: «Bizkaino burro».

Irakasle au umietara ezin jexi leike, umiak berriz irakasiengana ezin igo, eta ara emen gure aberriko ikastolarik geyenak zertarako diran: Umien buru argiak illundu, eusko gogua il, eta biar dan bezela ez azierarik eta ez jakintzarik emateko.

—

Gure umetxoakin, euskotar umetxoakin, ikastoletan egiten dan gauza negargarri bat esan biar det.

Gauza okerra, gauza ituna, neurritik kanporakoa, ondoren txarrak ekartzen dituana, Euzkadi galdu duana, eta beste bide bat artzen ez ba'degu, betiko ondamentian sartuko duana.

Gaiztakeri ori auxe da. Euskotar umiai euskotarrak dirala ez azaldutzia ta gure abendaren edesti ta urtasuna ez erakustia.

Italia'n bai da, urkamendian il diran notifiñen seme alabai aziera ona emateko ikastola bat.

Eta beratzaz gogoratzen naizan guztian oldoztu det auxe: «Ikastola orretan dabilzatan ume errukarri oyeri jastaldu edo ezkatatu ote diote inoiz euren itxorkuna, guri, euskotarroi ezkatatu ta ukatu diguten bezela?»

Onetan, gaurko ikastolak oker eta kalte aundi ikaragarria egiten dio gure erriari.

Anarkistak ez dute nai umiai euren errien edesti edo historia erakusterik.

Dana apurtu nai dute, dana puskatu ta birrindu, dana ankar gora bota, gero, lengo gauzen aztarnarik ere gabe gizaldi berria ta moral berria sortzeko.

«Gure asmoak aurrera eramateko etsai aundi bi ditugu—esaten dute anarkistak—eta etsai abek biak gizonak berekin daramazki, abenda ta Aberria dira.

Sagardia ta Iribar

Edari ta jangai mota guzitakoak
Pentsu, ikatz, arto, lursagar, e. a.
USURBIL

Bi gauza oyen aurka egiteko, abenda, ta aberriaren maitetasuna gizonen biotzetatik kentzeko gauzarik onena auxe da: Euren errien edestirik umiai ez erakustia, euren aurretiko-koen berriak umien buru biotzetatik kentzia, gaurko gizona bere asaba zakin lotzen duan lokarria ebakitzia.

Euren edestirik jakingo ez ba'lebe erri danak aitak ta ama gabeko sasi-kumiak bezela izango litzakez, eta sasi-kume zoritzarrekoak bere amaren alde zertan eritenik ez duan bezela, edesti gabeko erriak euren abendaren alde zertan egiñik ez dute, zein dan ez dakite-ta.

ARRITOKIETA

(«Euzkaditik artua.»)

MIRENTXU

Begira or seaskan
Dagon aurtxoari,
Loretegi bateko
Lilia dirudi.

Oyal txuri-goxoa
Dago estalia
Bakarrik agiri du
Matraitxo txuria.

Amak abestu dio
Oi dun olerkia,
¿Ta aurak zer egin du?
Itxi du begia.

Ezpaixotik dario
Irri-par ezta
Lolo ote dago ba?
Ez da ori egia.

Aurtxoa ez dago lo
Juan da donokira
An lagun gotzontxoak
Zai zeuzkan tokira
Antxen danak batere
Jolasten bai dira.

Ta amaitu danean
Jolas-aldia
Aurtxoak triki du
Ludian begia.

Amari entzun diot!
Esna zait lo-lo neukan
Lilitxo txuria.

ELORRI

Jolasak

Donosti'ko partiduetan alegia. Donostiarrak irabaztea ez deritzagu arrigarri; baño bai berak iru tanto ta oibotarrak batere ez lortzea.

Alde guztetik da ordea arrigarria Betis batek Madrid'eri onen zelayan irabaztea. An emen azaltzen ziran jokalaria onenak onetarako bereganatzen ote zituan Madrid F. C. bazkun dirudunak. ¡Partiduak diruz irabazi al-balitezke! Dirua ona da, baño beste zerbait ere bear partiduak irabazteko. Jokatzeko goago, alegia ta gogoa bazkunaganako maitasunetik baliz ez letorke ta diruz erositako jokalaria maitasun gutxi izan bear nai-ta nai ez. Bere egitekoa nola ala beteko du, baño orixe baliz ez du egingo.

Dirua, beraz, ez da naikoa partiduak irabazteko. Beste zerbait ere bear da, ta dirua bera baño geyago agian.

Irakuri astero ARGIA

DIABETES

eta bere ondorenak osoro sendatzen dira

Uranado Pesqui Ardoa'kin

ezukraa bota-arazten du, eguneko gramo bat: bala indartu ta egafia kendu ere, Saigeli, Ferroazite ta Drogerietan.

LABORATORIO PESQUI
Alameda, 17 SAN SEBASTIAN España

BERTSO BERRIYAK

Ludiaren asierari jaria

Jakintsu batek beartutzenau edestia irakurtzera, errespetoan «saya nadilla bertso berriyak jartzera; Kristau fiolak batu gaitezen. katolikoren antzera, egiak garbi argitalduaz asarre denak galtzera. ori eginai duanik bada ez noa atxikatzera.

Begi argiak ikusten dira garbi dagoen guetan, guri begira arriturkan oraingo zenbait legetan, negarrez gaude destierroko ballera triste onetan, aita Eternoak zer egin zuan asteko sei egunetan, erakusmen au adierazi nai nuke euskaldunetan.

Aintzan bearra Ludi zabal au irasten asi zanean, bakardadea beste gauzarik etzuan aldamentean, espirituen birtute aundia sayatuzten zan lanean, zerua, ultra, ura, sua ta argia era onean, bost gauza oiek egin zituan aurrengo egunean.

Bigarreanean egin zuana lenengo firmamentua, goiko estali urdiñ ori da bistako formamentua, gañeko udak bekuetatik berezitzeko tontua, gala aundian eragin zien beren apartamentua, neurrigabea izan bear du Jaunaren fundamentua.

Irugarrengo, esperentzia erakusten digu gertu, beste lagunik izan baño len

nola lezakean artu, gogoan zeukan oldozmenetik egundo etzan okertu, urak itxaso batera bildu andik legorak agertu, eta gero lurr belar ta zuaitz mota guzitik edertu.

Eguzkia eta illargia izarrak argiz betiak, ibillera ta esaunki danak dauzkate korrienteak, oietatikan zuzendu ziran azaña balienteak, egunak gauak ezkilak baita gañera urteak, lan beretikan jarri zituan guztion ayudanteak.

Lau egunetik bostgarrenean iritxirikan plazoa, arrai ta guzi konpletatua gelditu zan itxasoa, aldeko eta denari eman talentu baliosoa, alderdi dana añaaditzeko abildade osoa, bizitza ontan iraundakoa denon jabe ditxosoa.

Abere eta lur gañekoai añaaditzeko laguna, eskubidea biali zien izanik biotz biguñia, amoriozko lan bat zuzena bestek ezin zakeguna, gero gizona ornitu zuan au zan seigarren eguna, fede garbia izan ezkerro sinistu bear deguna.

Lendabiziko ezkatatua donoki lurren burutza, gañerakoak eginda ondoren gizonaren ondradutza, lur piskarekin bere antzera irudi eder korputza.

anima berriz asnas batekin andik espiritu utsa. guztia berak dezakeanak alperrik dizu laguntza.

Orretarako lagundu zion aita justuak lurrari, komeni zayon arreglo on bat jartzeko mundutarrari, jayotzen danak begiratzeko eriotzaren zorrari, nastugabetan igas egiñaz bide gaiztoko lurrari, denok eutsi bear diogu lengo dotriña zurrari.

Denon mundu au nundik asi [zan,

orra nik garbi itz egin kondaira zarrean dagoan gauz au ezin nezake utsegin aditu degu izkin tokitik, nola diguten otsegin sei egunean nekatu zanak, zazpigarrenean itxogin au jarri zuan ordena txarrik guretzat izan etzedin.

Orra zer lanak egin dizkan geureganako zalantzak, beti zorion eskuratuta bear dirala bonantzak, bere ondora eramateko egin zituan librantzak, biotzeraño zulatutikan amoriozko arantzak lege berdiñak orduan ziran geroztik daude mudantzak.

LEXO

Irakuri astero ARGIA